

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Udala**

Getxoko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko irailaren 30an, 252 Akordioaren laburpena; horren bidez honako hau erabaki zen: Getxo udalerriko gizarte kohesioan lan egiten duten erakundeei diru-laguntzak emateko 2025eko deialdia eta oinarriak onestea: 2. Diru-laguntza ildoak: gizarte kohesioaren arloko intereseko proiektuak 2_A1 Azpi lerroa. BDNS (Identif.): 860558.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/860558>).

Lehena. — Onuradunak

Irabazi-asmorik ez duten erakunde, elkarte edo fundazioak, gutxienez urtebeteko antzintasunarekin dagokien erregistro publikoan erakunde gisa erregistratuta daudenak, egoitza Getxon dutenak, banaka aurkeztu direnak, Getxoko udalerrian jarduerak egiten dituztenak eta/edo Gizarte Kohesioaren arloan getxotarrei zuzenduta daudenak.

Bigarrena. — Xedea

Gizarte Kohesioko Arlorako interesekoak diren eta erakundeek Getxon edo getxotarentzat egin nahi dituzten proiektuak bultzatzea eta sustatzea da: Garapenerako lankidetzak, berdintasuna, immigrazioa eta kulturantzatasuna, gazteria eta gizarte zerbitzuak.

Hirugarrena. — Deialdia

Deialdia Getxoko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko irailaren 30ean, 252 zenbakiko akordioaren bidez onetsi zen eta Getxoko udaleko webgunean argitaratuko dira deialdiaren argitarapenaren egun berean.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Deialdiaren zenbatekoa 76.336 eurokoa da.

Bosgarrena. — Eskerak aurkezteko epea

Epea 10 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau, diru laguntzen datu base nazionalaren bidez, Bizkaiko aldizkari Ofizialean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Getxon, 2025eko irailaren 30ean.—Gizarte Kohesiorako Zinegotzia, Carmen Díaz Pérez